

## **Ideia nagusia**

Best Vision enpresaren produktu nagusia betaurrekoak izango dira. Mota ugari fabrikatuko ditugu adibidez: Kondentsazio gabeko betaurrekoak (musukoarekin konbinatzeko). Baita ere, kirolarientzako betaurreko batzuk musuko erosoarekin sortuko dugu kirol jarduerak egiteko. Horrez gain teknologia eta laguntzaile birtuala ere sartuko dugu gure betaurrekoen diseinuan eta amaitzeko daltonikoentzat betaurreko modelo batzuk egingo ditugu. Daltonismoa daukaten pertsonen kasuan, koloreak behar bezala bereiztea ahalbidetuko die betaurreko hauek. Beraz, gure ideiarekin betaurrekoei beste erabiltasun batzuk gehituko diegu jendearen bizitza erosoagoa izateko.

